




EZKONTZAK

2026

ttipi-ttapa | 897 zk. | 2026-03-12



Ezkontzak

Egun bakarraren gibelean, hilabete aunitzetako lana

Egun inportantea izaten da norberaren ezkontza eguna. Ez ezkontza hitzak duen konnotazioagatik bakarrik, baita egun hori antolatzeak gibelean duen lanagatik ere. Egun bakarreko besta izaten da, baina atzean hilabete aunitzetako lana duena.

Ezkontzeko erabakia hartu eta segituan hasi behar izaten dute ezkongaien dena antolatzen: data pentsatzen, ezkontza eta otordua izanen diren lekua aukeratzen, bazkarirako menua dastatzen eta erabakitzen, gonbidapenak prestatzen eta banatzen, ezkontzarako arropa berezia erosten, loreak aukeratzen, zeremonia antolatzen, musika pentsatzen, eztei bidaia prestatzen...

Aunitz dira ezkontza bat ongi atera dadin aitzinetik lotu beharreko xehetasunak.

TTIPI-TTAPAK ezkontza bat ongi atera dadin inportanteak diren hiru alorretan paratu du begirada gehigarrian: ezkonbidaia, arropa eta musikan. Horretarako, hurrengo orrietan hiru alor horietan lanean aritzen diren profesionalen hitzak bildu ditu: Noaoa Bidaiak agentziako Garbiñe Martijarenak, Getary arropa markako Iraia Oiartzabal eta Ane Areitio moda disenatzailearenak eta Pello Elgorriaga Alkape DJarenak. Horrekin batera, azken aldian ezkontzetan dauden tendentzia diren hainbat kontu ere bildu ditu.



**HEMEN
DAGO ZUEN
AMETSETAKO
BIDAIA**



bidaiak

Eztegara pasealekua, 30 A
31780 BERA (Nafarroa)
Tels.: 948 630 451 / 948 630 641
info@takatukabidaia.com
www.takatukabidaia.com



FREEPIK



ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

- EGUNEKO MENUA
- SAGARDOTEGI MENUA
- KARTA
- OGITARTEKOAK
- PLATER KONBINATUAK ...

- 160 lagunendako jangela •
- Bazkalondoa nahi bertze luzatzeko aukera •
- Auto eta autobusendako aparkalekua •
- Haurrendako jolasparkea •
- Koktelarako leku aproposa •

Eskatu gure ezkontzetako menua!!

T. 948 625 472 | Alasta karrika - BERA
zubiondojatetxea.com

Zuen ametsetako ezkonbidaia antolatzen lagunduko dizuegu

Azken 12 urteetan 234 bikotek guri buruz emandako iritziei esker, LIDERRAK gara ezkontzak antolatzeko gehien erabiltzen den bodas.net plataforman.

N NOAOA BIDAIAK

info@noaoa.eus 943 373 613 | 679 273 745



KULTURKARI
Diseinu grafiko | Publizitatea
www.kulturkari.com

WEB orriak

Landetxeak Komertzioak Gremioak...

Ordenagailu, tablet eta mugikorrerara egokitua
Kontaktua formularioa
Lokalizazio-mapa
Testu eta argazki galeria
Hizkuntzak aukeran





«Bidaia bezeroaren beharretara egokitzen dugu»

GARBIÑE MARTIJA NOAOA BIDAIAK



UTZITAKOA

Ezkonbidaia kasuan, ezkontideek bidaia antolatzeko orduan bultzada bat behar izaten dutela dio Martijak. «Gaur egun jendeak dagoeneko bidaiatu du aurretik, baina, ezkonbidaia berezia da duen konnotazioagatik eta betirako oroitu duzun bidaia delako». Ezkontza antolatzeak, gainera, lan asko eskatzen du, «ezkontideek askotan ez dute denborarik izaten, horrelako bidaia bat antolatzekoan kontu asko itxi behar dira eta denbora behar da dena ongi ateratzeko».

Neurrian egindako bidaia

Pandemiaz geroztik, aurretiazko hitzorduarekin bakarrik egiten dute lan, bezeroari «kalitatezko zerbitzua emateko» eta bezeroaren nahiak aditu eta horren arabera antolatzen dituzte bidaia: «Batzuk Kanariar Uhartera joango dira, eta beste batzuk Japoniara. Guretzat garrantzitsua bikote bakoitzaren beharrak zein diren ikusi eta horietara egokitzea da», nabarmendu du Martijak. Horretarako, bezero bakoitzaren nahietara eta errekursoetara egokitzen dira: «Bidaia antolatzeko ez dago aurrekontu finikorik, 1.000 euro edo 10.000 euro gastatu beraientzat garrantzia berdina du bidaia eta guretzat ere bai. Beraien bidaia da, eta ulertu behar da zein den bakoitzaren aurrekontua».

Denbora ere aldagai garrantzitsua izaten da bidaia antolatzeko orduan, bidaia zenbat eta lehenago antolatu, orduan eta prezio hobeak eta aukera gehiago izaten direlako. Horregatik, Martijaren aholkua bidaia ahalik eta lasterren antolatzeko hastea da. Hala ere, denboraz larri ibilita ere, antolatu daitekeela dio: «Baina kontuan izan behar da prezioetan gehigarriak egoten direla eta alojamentu batzuk beteak egon daitezkeela».

Ezkonbidaia ahalik eta hobekien atera daitezen lanean aritzen dira Noaoan eta argi diote zer den beraientzat pozgarriena: «Bidaia bukatzean dena ongi atera dela jakitea».

Ezkontza ez da eztei egunarekin bukatzen, ezkontza bezain inportantea edo inportanteagoa izaten baita ondorengotik egiten den ezkonbidaia. Bikoteek mimoz prestatuko bidaia izaten da, eta lan handia duena giblean. Bada, horretan aditua eta aritua da Lasarteko Noaoa Bidaia agentzia. Deneratiko bidaia antolatzen dituzte, baina azken urteetan ezkonbidaia espezializatu dira. Ezkontzak antolatzeko erabiltzen den *Bodas.net* atarian agentzia onenaren saria irabazia dute hamabigarren aldiz eta 234 bikoteren iritzia bilduak dituzte bertan.

Hamasei urteko esperientzia du agentziak bidaia antolatzen eta bizitza aldatu den eran, bidaiatzeko modua ere aldatu dela uste du Garbiñe Martijak. Horregatik, une oro «egokitzen» aritzen dira. Agentziaren lana bilaketak egitea baino gehiago da haren ustetan: «Gure balio erantsia gure jakinduria da. Guk ere asko bidaiatzen dugu, eta horrek jakinduria ematen digu bezeroa aholkatzerako eta bidaia prestatzeko orduan».

Internet hain presente dagoen garaian, argi dute «guk ezin dugula horrekin lehiatu». Horregatik, bertzelako balioa eta ezaugarriak eman behar dizkiote beren lanari: «Gure jakinduria lasaitasuna eta segurtasuna ematen die bezeroei», nabarmendu du.

20



HOTEL BAZTAN



Zure "bai, nahi dut" bereziena Baztan Hotelean.

*Ospatu zure ezkontza Baztango bihotzean, non naturak
eta dotoreziak bat egiten duten egun ahaztezin batez gozatzeko.*

948 58 00 50 - hotelbaztan.com




Zure larrua prestatzen dugu tratamendu pertsonalizatuarekin eta zure ezkontza egunean berezi senti zaitezzen diseinatutako paketeekin; egun berezi horretarako zerbitzu osagarriak ere



ALKAPE

EZKONTZA, FESTA ETA EKITALDIETARAKO DJ-A

bedanet wedding awards 2026



627 966 830
alkape1987@gmail.com

«Ezkontzaren aitzinetik dena prest izateak lasaitasuna ematen du»

PELLO ELGORRIAGA ALKAPE DJ

«Alkaiagan sortutako mutiko ez hain gaztea», halaxe definitu du bere burua Pello Elgorriagak, Alkape DJ bezala ere ezaguna. Ezkontza, besta eta edozein ekitalditan DJ animatzaile gisa aritzen da duela 19 urte. Familian «odolean» dute musika, eta «belaun operazio baten ondotik» hasi zen DJ lanetan; «ohatzean zer egin ez nekiela, informazio bila hasi nintzen. Muletekin batera erabili nituen lehenbizikoz DJ platerak!».

Gaur egun «mota guzietako ekitaldiak» girotzen ditu; «herriko bestak, inauteak, kinto bestak, aurkezpenak, jaunartzeak eta batez ere ezkontzak. Normalean Gipuzkoan eta Nafarroan aritzen naiz, baina azken urteetan Bizkaian, Errioxan eta Frantzia aldean ere ibiltzen naiz». Horretarako musika eta argiztapen ekipo propioak ditu, «ekitaldiaren arabera ekipo desberdina eramaten dut, aukera ederra dut».

Ezkontza guzietarako prest

Esperientzia zabala du ezkontzetan eta argi du; «gero eta gehiago pres-tatu, hobe aterako da seguru. Ez dira bi ekitaldi berdina izaten eta hagit inportantea da lehenagotik informatzeara». Gainera, azken 2-3 urteetan «ezkontzak aldatzen ari direla» dio, «protokoloak desberdinak dira eta polita da gauza berriak sartzeara. Adibidez, tarta mozketa egin beharrean, batzuk bingo musikala egiten dute».

Bezeroarekin lan egiteko, «lehenbiziko kontaktua telefonoz izaten da, gainera solastatzeko inongo konpromisorik gabe. Neure burua aurkeztu eta prozesu guziaz azaltzen diet; ahalik eta gehien laguntzea gustatzen zait, bai musikan baita bertze atale-tako aholkularitzan ere. Ezkontzaren aitzinetik behar diren guzietan gelditzen gara, eta hilabete bat lehenago dena prest izaten dut, bikoteari lasaitasuna emateko». Egunean ere «hasieratik jendea ezagutzea gustatzen zait, gero eta tratatu hurbilagoa, orduan eta lasaitasun handiagoa».



UTZITAKOA

Musika «beharrezkoa da ezkontza guzietan. Ongi jan bai, baina gero giro onik ez bada, gaizki goaz!». Horrez gain, «animazioa ere hagit inportantea da, mikrofonoa egun guzian erabiltzen dut informazioa emateko eta animatzeko». Kantaren aukeraketa bezain inportantea da momentu egokian paratzea, «koketelean, tarta moztean... eta horretarako aitzinetik dena solastatua eta pres-tatua izaten dugu».

Hala ere, «ekitaldi guziaz desberdinak dira, bikotea eta gonbidatuak ere, beraz, musika ere diferentea eta pertsonalizatua da. Ez da berdina ezkontza bat Baztan-Bidasoan edo Donostia aldean. Baina 19 urtetan ederki prestatzeko denbora eman dit eta ez diot beldurrik ezerri! Duela urte batzuk, adibidez, Hernaniko neska bat eta guardia zibil bat ezkondu ziren. A ze kultura eta musika diferenteak, ezta? Baina etxeko lanak ongi eginak ziren eta primerako eguna pasatu genuen».

Azkenik, «zuen egun inportantean laguntzea nahi baduzue, beldurrik gabe sare sozialetan begiratu, deitu eta galdetu konpromisorik gabe. Eta nola ez, eskerrik asko urte hauetan guzietan nitaz oroitu zaretenei. Zuei esker han eta hemen ibili naiz 19 urtez eta horrelaxe segitzen dut, nork daki noiz arte!».

«Ezkontza egunean gure nortasunari eutsi beharko genioke»

IRAIA OIARTZABAL ETA ANE AREITIO GETARY

Iraia Oiartzabalek eta Ane Areitiok duela bost urte jarri zuten martxan Getary atelierra. Ezkongaienezako eta gonbidatuentzako neurria egindako jantziak sortzen dituzte, puntadaz puntada ilusioei forma emanaz. Ezkontza eguneko jantzia azala bada, mamiaren erakusle izatea nahi dute: «bezero bakoitza da mundu bat eta janzkerak horren erakusle izan beharko luke». Argi diote: «Ezkontza egunean norbere nortasunari, esentziari, eutsi beharko genioke». Horregatik, jantzi pertsonalizatuak egiten dituzte: «Bezero bakoitza proiektu berri bat da, hutsetik hasten dena, eta elkarrekin, pausoz pauso osatzen duguna».

Beraien negozio ereduano presente dute lan egiteko modu hori: «gure ezkongaiak izen-abizenak dituzte. Ez dira zenbaki hutsak. Kupo bat daukagu eta kupo hortara iristen garenean ez ditugu bezero gehiago hartzen. Oso fidelak gara horrekin». Getaryn sartzea «etxean sartzearen parekoa» izatea nahi dute: «hurbiltasun hori eskaintzen saiatzen gara». Badakite momentu berezia dela bezeroarentzat: «Neurria egindako soinekoak ez dira bizitzan askotan egiten eta ezkontzako soinekoak badu esanahi berezi bat, urduri etorri ohi dira. Gure helburua da giro goxoa sortzea».

Atelier txiki bat da Getary eta agenda betea izaten dute: «Urtebeteko aurrerapenarekin lan egiten dugu eta bezero bakoitzari behar duen denbora eskaintzen diegu. Hilabete luzetako lana izaten da». Telefonoz egin ohi dute lehenbiziko hartu-emanak: «gure lan egiteko modua zein den azaltzen diegu. Eginda dauden soinekoak probatu nahi dituenak alferrikeriko da guregana. Soinekoa elkarrekin egitea da, zerotik hasita, hemen eskaintzen duguna».

Hitz bakarrean bildu dute prozesu guztiaren muina: «Konfiantza izatea da gakoa. Gurekin lan egitea erabakitzen dutenean, ikusi eta ukitu




GETARY

ezin duten soineko bat erosten ari dira. Prozesua bizi nahi izatea eta emaitzan sinestea ezinbestekoa da». Behin hori azalduta, elkar ezagutzeko lehenbiziko hitzordua egiten dute: «Ezkongaiaren pertsonalitatea identifikatzea da gure lana, gero jantzia hori irudikatu eta eroso sentitu dadin». Badakite batzuentzat balekoa dena, ez dela hala besteentzat eta horregatik mezu argia ematen diete ezkongaiak: «Mesedez egun horretan ez asmatu ezer. Zure nortasuna ez estali eta eutsi zure izateko erari». Horretara iristeko, bezeroak esaten duenak bezainbesteko garrantzia du beraien begi trebeak ikusten duenak: «analisi on bat egitea oso garrantzitsua da».

Aurreneko hitzordu horretan bildutakoak abiapuntutzat hartu eta lehenbiziko marrazkia egiten dute. Bezeroak proposamena onartuz gero, hurrengo pausoa oihaleko proba egitea izaten da: «Gorputzaren gainean hasten da sorkuntza prozesua eta probaz proba eta erabakiak elkarrekin hartuz osatuko da soinekoa. Guretzat polita da orri zuria gorputz bilakatu eta jantzia nola doan osatzen ikustea». Eta ongi egindako lanaren ordaina ere ikusten dute: «Ez kongai batek soinekoa jantzi, ispilu aurrean jarri eta irribarreza ezin ditugunaren seinalea da».





Dotore azken joerekin:
Gure ukitu aditua
zure egun berezirako

Karma
ESTETIKA

Altzate, 33 BERA Tel.: 948 630 904

Zure estilo eta gustura egokitutako ezkontza ekitaldia

Ezkontza tradizioaletik harago, gero eta gehiago dira ekitaldi berezi eta paregabea bilatzen dutenak, ezkon- gaien izaera eta gustuei moldatua. Hala ere, boladaz bolada, urtero errepikatzen diren joerak ikus daitezke ezkontzen estiloan, dekorazioan, janzkeran, eguneko jardueretan... Joera berrienak ezagutu nahi?

Minimalismoaren garaia

Estilo minimalistako ezkontza funtsezko elementuen edertasunean oinarritzen da. Gehiegikeriatik at, detaile gutti ditu, baina ongi zainduak.

Dekoraziorako, lore sorta handiak erabili beharrean, lore bakarreko konposizioak erabiltzen dira mahai eta aulkietan, baita ezkongaiaren sortan ere. Ziklamen edo arrosa zu- riak, adibidez, aukera ezin hobea dira giroari dotoretasuna emateko. Kolo- re bakarreko oihalek ere bat egingen dute estilo minimalistarekin, mahaie- tan zein dekorazio gisa eskegiak, aldarean adibidez. Horretarako, zu- ria eta kolore argiak izan ohi dira nagusi. Xehetasun gehiago eman nahi badizkiogu, globoak, loreak edota perlak erabil ditzakegu.

Ttikitasantetik handitasunera

Minimalismoa gustuko ez dutenek, ordea, bide guztiz desberdina har dezakete: *rokoko glama*. Oparotasu- nean oinarritutako estiloa da hau; gero eta elementu gehiago, hobe.

XVIII. mendeko Frantzian inspira- tutako mugimendua da, baina ikus- puntu moderno batetik. Brodatuta- ko oihalez eta kolore biziz estalitako aretoak dira ezaugarri nagusia: mal- ba, urre kolorea, gorri-morea... Per- lek, kandelarioek eta ornamentazio moldurek beteko dituzte jangelak. Eta lore sortak, nola ez, eskultorikoak.

Aurtengo kolorea

2026ko koloreen paletan bat gailen- du da bertzeen gaintetik: *serenity* urdina. Urdin leuna da, grisaxka, lasaitasuna eta sosegua transmititzen duena. Dekorazioko edozein elemen- tutan erabiltzeko aproposa.

Mugikorrik gabeko ezkontza

Diseinu estetikoaz gain, ekitaldiak berak berebiziko garrantzia du eta hori ahal bezain bertze disfrutatze- ko, XXI. mendeko distrakzio nagusia alde batera uztea da azken joera: mugi- korrik gabeko ezkontzak.

Gonbidapenetan edo ekitaldia hasi aitzinetik, gonbidatuei mugikorrek itzaltzeko edo hegazkin moduan paratzeko eskatzen zaie. Honela arre- ta ekitaldian paratuko dugu, eta bi- denabar, argazkilariari bere lana egiten utziko diogu sakelekoaren kamera etengabe erabili beharrean. Hala ere, gonbidatuei argazkiak egi- teko aukera eman nahi badiegu, behin erabiltzeko kamerak aukera ederra eta dibertigarria dira.



MERCHE MODA NOVIOS

2026KO BILDUMA BERRIA
EZKONGAI ETA GONBIDATUENTZAKO
JANTZIAK

ETIEM ROBERTO VICENTTI RAMON SANJURJO

Serapio Múgica, 11 - IRUN | T. 943 612 626
www.merchemodairun.com
@merchemodahombre



CAMERA OBSCURA PHOTO & FILM